

2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

BEZEROA

Gure bezeroentzako objektiboa lan-sektore ugarian dago, ezin dugu bakar batean finkatu. Lehenengoa adibidez, negozioen jabeak; laguntzaile birtual bat ezkaintzen dugu, langileak zeregin espezifikoekin gidatzeko. Bigarrena, kudeatzaileak eta gainbegiraleak, lan-jarduerak denbora errealean monitorizatzeko eta erregistratzeko tresna bat eskaintzen dugu, etengabeko gainbegiratzearen beharrik gabe jarraipen zehatza egiteko aukera ematen du. Azkenik, langile anitzeko establezimenduak, tabernetatik hasi eta abokatu edo enpresen lantzetaraino, aplikazioak lan-komunikazioa eta langileen kudeaketa eraginkorra errazten du, produktibitatea eta efizientzia hobetuz.

Laburbilduz, gure bezero objektiboak langileen eraginkortasuna hobetzea eta langile asko dituzten inguruneetako komunikazioa arintzea bilatzen dugu.

BEZEROEN SEGMENTUA

Gure kasuan, bezero-segmentuak negozio edo industria motaren eta langileak kudeatzeko moduaren arabera bereiz ditzazkegu. Hainbat langilerekin egindako negozioak adibidez, segmentu horretan tabernak, jatetxeak, hotelak, zerbitzu-enpresak gainbegiratzea eta koordinazioa eskatzen duten hainbat langile dituzten beste establezimendu batzuk sartzen dira.

Jarraituz, eraginkortasunarekin kezkatuta dauden negozioen jabeak, langileen kudeaketa optimizatu nahi duten eta zereginak eskuordetzeko, jarduna monitorizatzeko eta negozioaren eraginkortasun orokorra hobetzeko tresnak bilatzen dituzten jabeak baita ere. Bukatzeko, lan-kudeatzaileak, segmentu honek hainbat lan-inguruetan, hala nola bulegoetan, ikasketan profesionaletan... langile-talde bat zuzendu eta ikuskatzeaz arduratzen direnak ditu ardatz.